



Andoaingo Udala

ALKATETZAREN EBAZPENA

Olagain Udal Txistularien elkarteak 2026ko uztailaren 7an aukezturiko dirulaguntza eskaera ikusirik, 2026. urteko bere kultur jarduerak aurrera eramateko.

Hezkuntza eta Kultura teknikariaren txostena ikusirik.

Udal Kontuhartzaileak egindako txostena ikusirik.

Horrenbestez, ondokoa

ERABAKI DUT

1.- Onartzea, Andoaingo Udala eta Olagain Udal Txistularien elkartearen artean proposatutako lankidetzak hitzarmenaren sinadura, zeinak honako ezaugarriak izango dituen.

Xedea: 2026rako antolatutako kultur jarduerak.

Dirulaguntza: 5.320€.

Partida: 1.0500.481.338.00.09.2026 (Kodea 608)

Indarraldia: 2026-01-01tik 2026-12-31ra.

2.- Hezkuntza eta Kulturako zinegotzi ahaldunari hitzarmen hau sinatzeko ahalmena ematea.

3.- Olagain Udal Txistularien elkarteari bidaltzea hitzarmena, Hezkuntza eta Kulturako zinegotzi ahaldunak sinatuta.

4.- Onartutako dirukopuru honen %60a, hau da 3.192€ Olagain Udal Txistularien elkarteari ordaintzea onartzea. Elkarteari utzitako udal materialaren bat egoera txarrean edo apurtuta bueltatuko balute, dirulaguntzaren bigarren zatirengatik jaso beharko luketen dirukopurutik deskontatuko da konponketa horren gastua. Iritsiko ez balitz, diferentziaren ordainketa egin beharko dute.

5.- Dirulaguntzaren bigarren zatia ordaindu ahal izateko, aipatu elkarteak 2026ko urtarilaren 15a baino lehenago aurkeztu beharko dituela 2026ko jardueren memoria, likidazioa eta zurigarri guztiak.

6.- Kontuan izan behar dituzte sarrera eta gastuen balantzea ondo zerrendatuta eta kontzeptu bakoitzaren zenbatekoarekin aurkeztuko direla, eta Olagain Udal Txistularien elkarteak sinatuta egon beharko dutela. Izandako sarrera guztien zerrenda ere aurkeztuko da, eta kontzeptu bakoitzaren zenbatekoa.

7.- Ebazpen hau Olagain Udal Txistularien elkarteari eta Udal Kontuhartzaitza lantsailari helaraztea.

Hala agindu eta sinatu dut, Andoaingo sinadura datan

IDAZKARIA

ALKATEA

